

«Berritasunik ez», plataformakoen hitzetan

*A-15 autobidea doan izatea «ezinezkoa»
dela berretsi die Gobernuak alkateei*

Alberto Barandiaran / Iruñea

N-121 errepidearen plataformaren eta Miguel Sanzen bilerak ez zuen ezer berririk ekarri, eta alkateek dei egin dute, beraz, iragarrita dauden mobilizazioetan parte hartzeko. Alkateek nahi dute Kontuen Ganberak azter dezala A-15 liberalizatzeko Gobernuak aipatzen dituen zenbakiak zuzenak ote diren.

«EZ DUTE ezer berririk eskaini eta, egia esanda, zeozer espero genuen». Roberto Flamarique plataformako bozeramailearen hitzetan, bilerak aurreko jarrerak berresteko baino ez zuen balio izan. «Daturen bat ekarriko zutela uste genuen, baina lehen bezala gaude orain ere». Datorren iganderako Tafallan deitu duten kontzentrazioaren deialdiari eutsi egingo dio plataformak eta Kontuen Ganberaren tartekaritza eskatuko, Gobernuak aurkeztu dituen datuak zuzenak ote diren aztertzeko.

Bileraren aurretik ere ez zuten askorik espero, baina herrietako alkateak apur bat dezeptzionaturik atera ziren batzarretik. Bertan izan ziren Iruñea eta Tafalla bitarteko

alkate gehienak alde batetik, eta Miguel Sanz eta Rafael Currea presidente eta presidenteordea, Jose Ignacio Palacios Herrilan kontseilaria eta Alvaro Miranda zuzendari nagusia, bestetik.

Palacios: «Liberalizazioa, onartezina»

Palaciosek berretsi zien herrietako alkateei A-15 doan jartzeak 50.000 milioi pezetako kostua izango zukeela, eta hori «onartezina» dela. «Norbaitek esaten badu bidesaria ken daitekeela, ikusi egin beharko da nondik kentzen den dirua», gehitu zuen Herrilan kontseilariak, «ez baita posible autobidearen zati bakar bat liberaliza-



JOXE LACALLE

A-15eko bidesaria kentzea ezinezkoa dela berretsi zien atzo alkateei Miguel Sanzek.

tzea, dena egin beharko litzateke».

Bileran ofizialki jakinarazi zitzaizen alkateei lehendik prentsaren bidez jakin dutena: hau da, gobernuaren proiektatzen ari dela Beriaindik atera eta Artederreta gainerraino joango litzatekeen saihezbidea, N-121 bertan konponketa lanak gune beltzenetan, eta A-15 autobideko bidesarien merkatzeari. Neurri hori Aste Santurako izan liteke martxan, eta egungo errepidearen lehen konponketak datorren urte-

an hasiko lirateke. Orobat, aipatu zen ere ibilgailu astu-entzatzat ia dohainik izan zitekeela A-15eko bidesaria, horixe baita hain zuzen ere N-121 errepideak egun duen arzo latzena.

Inpresio orokorra, esan bezala, ez zen aldatu. Hau da, alkateek ez dute uste asko aurreratu denik, baina gutxienez badute gobernuaren asmoen berri, ofizialki. Ezer erabaki baino lehen datorren igandean, esan bezala, Tafallan egingo da kontzentrazioa, aurretik ira-

garrita zegoen bezala, eta hilaren 21ean bilera egingo dute alkate guztiek Barasoaingo udaletxean, proposamen berrien aurrean zer egin behar den erabakitzeko.

Hautetsien artean iritziak mota guztietakoak dira, hasi A-15ren liberalizazioa ezinbestekotzat jotzen dutenekin eta bukatu egungo neurriak egokitzen jotzen dutenekin. Askok uste dute liberalizazioa ez dela inola ere lortuko, eta nahikoa dela gobernuak eskaintzen duena, baina 21ean hartuko da erabakia.

NBEren arabera, hiesak gerrak baino hamar aldiz hildako gehiago eragiten ditu Afrikan

■ Horri aurre egiteko, diru laguntzak ugalduko ditu Segurtasun Kontseiluak

Erredakzioa / Donostia

NAZIO BATUETAKO Segurtasun Kontseiluak hiesaren aurkako borrokan Afrikara diru laguntza gehiago bidaltzea erabaki zuen astelehenean egindako bileran. Izan ere, gerra guztiek baino hamar aldiz hildako gehiago eragiten ditu hiesak, NBEk zabalduko datuen arabera. Horren harira, Al Gore EEBBetako lehendakariordeak jakinarazi zuen 325 milioi dolarreko diru laguntza eskainiko dutela.

Herenegungo bilera historikotzat har daiteke, erakundeak sortu zenetik lehenengoz aztertu baitzituen osasun

kontuak Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluak. Bertan, hiesa bakea lortzeko mehatxu larria dela eta aurre egin behar zaiola adierazi zuten erakundea osatzen duten 15 herrialdeetako ordezkariak. Bilera Etxe Zuriak antolatuta zuten, Afrikaren inguruan duen politikajendeari jakinarazteko.

Nazio Batuek zabalduko datuak «beldurgarriak» dira. Afrikan, 23 milioi pertsona baino gehiagok dute Giza Inmuno-eskasiaren Birusa (GIB), hots, hiesa eragiten duen birusa. Era berean, gaitasun horrek eraginda gurasorik gabe geratutako haurren %90 kontinente

horretakoak dira. Nazio Batuen arabera, egunero 11 mila afrikar inguru kutsatzen dira hiesaz, eta horien erdiak 25 urtez azpiko gazteak dira. Azken urteetan hiesak eragindako hildakoak 14 milioi inguru dira, iturri horien arabera.

Kofi Annan NBEtako idazkari nagusiaren esanetan, «hiesa krisialdi sozial eta ekonomiko handiak sortzen ari da, eta horrek Afrikako hainbat herrialderen egonkortasun politikoa arriskuan jarri du». Kontuan izan behar da hiesa ez dela herrialde hauek askok duten arazo bakarra, hainbatetan gosez hiltzeko arriskua handia baita.



HENRY RAY ABRAMS / EPA

Al Gore eta Kofi Annan, herenegun New Yorken eginiko bileran.

«Hiesak, segurtasun krisia ere badakar, ez baitagokio gizabanakoari soilik, gizartea babesten duten erakundeei baizik», gaineratu zuen Annanek.

Egoera «dramatikoa» bada

ere, Annanen arabera «hau da herrialde azpigaratuei nazioarteko laguntza emateko momentua». Herenegungo bileran, sendagaiak eskuratzeko erraztasunak eskaintzea adostu zen.